



Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia

Natura-ondarearen diagnostikoaren sarrera

Estrategia hori testuinguruan sartzeko eta ardatz-marko bat ezartzeko helburuaz, Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak, Dibertsitate Biologikorako Aichiren xedek barne hartzen dituen Dibertsitate Biologikorako 2011-2020 Plan Estrategikoaren barrukoak, 17. xedea jasotzen du; honako hau dio hitzez hitz: «2015. urterako alde bakoitzak honako zeregin hauek beteko ditu: dibertsitate biologikoaren eremuan, estrategia eta ekintza-plan nazional eraginkorrak, parte hartzeak eta eguneratuak politika-tresna gisa hartuko ditu eta martxan jarriko ditu».

Eusko Jaurlaritzak, gainerako administrazioekin batera, 20 urte baino gehiago daramatza biodibertsitatearen kontserbazioa sustatzen, kontzeptu hori osatzen duten alde ezberdinei dagokienez. Hala ere, hitzarmen horri dagokionez, hobetu beharreko gauza asko daude, besteak beste, erakundeen arteko koordinazioa, baliabide ekonomikoen zenbatekoa, tresna estrategikoen zabaltzea eta jakintza teknikoaren eguneraketa.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurune Naturaleko eta Ingurumeneko Plangintzaren zuzendaritzak helburu bat ezarri du: biodibertsitatearen inguruko lan-marko orokorra ezartzea, foru-aldundien eta inplikaturako gainerako erakundeen eta agenteen arteko kolaborazio-ekimen ugariak indartzeko. Horiek horrela, IV. Ingurumen Esparru Programak honako helburu estrategiko hau planteatu du 2020 urterako: Euskadiko ekosistemen narriadura eteten lortzea, habitat eta lur- eta itsas-espezia eta espezia basati nagusien egoera hobetzea eta eremuen isolamendua eta espezia inbaditzaileak era integral eta sistematikoan kudeatzea. Horretarako, eskumeneko administrazioen multzoak hertsiki kolaboratu behar du eta herritarren inplikazioa sustatu behar da. Horretatik guztitik abiatuta, EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategia eratzeko proiektua sortu da.

Honen bidez aurkeztzen den dokumentuak ikus-formatua du, eta Euskadiko natura-ondarearen azterketa laburtzen du. Diagnostiko horren bidez, alderdi garrantzitsuenak, zehaztugabetasun nagusiak eta hobetu behar diren arloak identifikatu eta era objektiboan garatu nahi dira, gure lurraldeko biodibertsitateari eta geodibertsitateari dagokionez. Ikuspegi orokorra ezartzeko erabakiak hartzean alderdi horiek funtsezkoak



izango dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren helburu estrategikoak eta lehentasuneko ekinbideak identifikatzea erraztuko dute.

Diagnostiko hori egiteko, hainbat diziplinarekin erlazionatutako dokumentuak sakonki aztertu dira, eta informazioa ahalik eta laburtuen, argigarrien eta sinpleen azaltzen da hemen. Nahi izatekotan, diagnostiko honen inguruko ekarpenak egin daitezke Irekia plataforma digitalaren bitartez.

DIAGNOSTIKOAREN EGITURA

EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategiak zeharkako ikuspegia izango du, estrategia osatzen duten alor ezberdinak eta alor horietatik askatzen diren diziplina anitzeko sinergiak aztertzen dituena. Bereziki, sinergia edo osagarritzko ikuspegi horiek aberastu behar dute estrategia.

Diagnostikoak dokumentu honetan duen irismen nagusiak natura-ondareari eragin ahal zaizkion gaitzetan jartzen du arreta, baita gaitz horien eraginez sor litezkeen aukeretan ere. Edukiei eta gogoetei dagokienez, geodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak biodibertsitatearen alor ezberdinen bidez txertatzen dira estrategia honetan. Ikuspegi horrek administrazioa gaitzea da helburua, natura-ondarea egoki kudeatzeko; betiere, natura-ondarea baimentzen dituen kudeaketa-aukerei jarraituz. Halaber, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen artean dauden gatatzak eta aukerak islatu nahi dira, hau da, bi diziplinen arteko eragina.

Natura-ondarearen diagnostikoa errazago ulertzeko, jarraian, haren edukia nola egituratu den zehazten duen eskema bat aurkezten da.



1. Natura-ondarea (biodibertsitatea + geodibertsitatea)

- a) EAerako intereseko habitatak
- b) EAerako intereseko espezieak
- c) Ekosistema-ondasunak eta -zerbitzuak

EAEko natura-ondarea osatzen duten elementuak aztertu dira. Alde batetik, EAerako intereseko habitaten azterketa egiten da, Erkidegorako (Europar Batasunerako) Intereseko Habitaketatik (EIH) eta Red Natura 2000ko eremuetako helburuen eta neurrien dokumentuetan jasotako elementu nagusietatik lortutakoa. Beste alde batetik, arriskuan dauden espezieen Euskadiko katalogoan eta zerrenda gorrietan jasotako espezie basatien egoera balioztatzen dira.

Ekosistema-ondasunak eta -zerbitzuak tresna gisa aztertzen dira, biodibertsitateari eta geodibertsitateari ekartzen dizkioten ongizate eta garapen ekonomiko eta sozial ugariak ulertzeko aukera ematen duen tresna gisa.

2. Lurralde-kudeaketa

- d) Intereseko natura-eremuak
 - Eremu babestuen sarea
 - Espazio natural garrantzitsuen katalogo irekia
 - Natura-intereseko inguruak
 - Interes geologikoko tokiak
- e) Azpiegitura berdea
 - EAEko Korridore Ekologikoen Sarea
- f) Lurraldearen antolamendua
- g) Hezeguneen inbentarioa

Atal honek Euskadin dauden lurraldea kudeatzeko tresnei eta horiek natura-ondarearekin duten erlazioari buruzko gogoeta egitea errazten du.

Intereseko eremu naturalak aztertzen dira, honako eremu-alar eta elementu hauek aintzat hartuta: 1/2014 LD (zuhaitz bereziak, babestutako biotopoak, parke naturalak eta Red Natura 2000 – Batasunerako garrantzizko lekuak, KBE, HBBE) Babestutako Eremu Naturalen Sarea, Ramsar hezeguneak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba, interes geologikoko lekuak eta geoparkeak.



Horrez gain, aintzat hartzen dira korridore ekologikoak, azpiegitura berdea eta EAEko hezeguneen inbentarioa; denak eremuen arteko konexio ekologikoa ahalbidetzen duten elementu gisa.

Bestalde, EAEko lurralde-antolamendua eta paisaiak babesteko, eta kudeatzeko tresnak identifikatzen dira, hala nola, lurralde-antolamendurako jarraibideak, paisaiaren katalogoak, paisaia mugatzea, eta abar.

3. Natura-ondarearen erabilerak

- a) Nekazaritzako eta basozaintzako sektorea
- b) Arrantza
- c) Turismoa
- d) Erauzteko jarduerak
- e) Dibertimendurako ehiza eta arrantza

Natura-ondareari dagokionez egiten diren erabilerak zehazten dira hemen; eta, bereziki, habitat eta espezie ugariarentzako kontserbazioaren eta nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileren arteko garrantzia nabarmentzen da. Gainera, gizakiek baliatzen dituzten ekosistema-zerbitzu ugariak adierazten dira. Garrantzia berezia ematen zaio jasangarritasunean, berrikuntzan eta enpleguan oinarritzen den garapen ekonomikoaren ikuspegiari.

4. Presioak

- a) Artifizializazioa/urbanizazioa
- b) Baliabide naturalen gaineko sektore ekonomikoen jarduerak
- c) Kutsadura
- d) Klima-aldaketa
- e) Espezie exotikoak eta espezie exotiko inbaditzaileak

Besteak beste, presio horiek natura-ondarearen kontserbazioari eta kudeaketari ekartzen dizkieten ondorioak aztertzen dira.